

# Eraldaketa Sozialerako Hezkuntzari buruzko V. Jardunaldiak



## Hezkuntza eraldatzailerantz aurrera egiten: erakunde eta instituzio publikoen arteko aliantzak

Donostia (gunea baieztatzeko dago)

2022ko irailak 30, ostirala

17:30 - 17:45 **Jardunaldien inaugurazioa**

17:45 - 18:45 **Hasierako ponentzia elkarriketan**

**Anahi Guelman.** Hezkuntza Zientzietan doktorea eta lizentziatua Buenos Aireseko Unibertsitatean (UBA). CLACSO erakunde "Herri-hezkuntza eta Pedagogia Kritikoak" lantaldeko kidea. UBako ikerketa-proiektuen zuzendaria da (proiektu horiek lan produktibotik lantzen dituzte pedagogia deskolonizatzaileak), Hezkuntza Zientzien Departamentuko zuzendaria eta UBako Hezkuntza Zientzien karrerako Pedagogia Katedrako irakasle titularra. Hainbat liburu eta zientzia-aldizkarietarako artikuluak idatzi ditu.

**Suyapa Martínez Scott.** Suyapa Martínez Scottek Pedagogiako doktoretza egin zuen Valladolideko Unibertsitatean eta Pedagogia Departamentuko irakasle kontratatu doktorea da Segoviako Hezkuntza Fakultatean (UVa). Unibertsitateko irakaskuntzarekin, Hezkuntza kritiko eta inklusiboarekin eta Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzarekin lotutako I+G+B, irakaskuntza-berrikuntzako proiektu eta ikerketa-talde ezagunetako kidea da. Gaur egun, Valladolideko Unibertsitateko Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Behatokiko (OCUVa) zuzendaria da.

Moderatzailea: **Josu Osoz.** Arabako Foru Aldundia

18:45 - 19:15 **Galderak eta erantzunak**

19:15 - 19:30 **Lehenengo egunaren itxiera**

2022ko urriak 1, larunbata

9:30 - 10:45 **Goizeko solasaldia**

Esperientzia eraldatzaileak, sareen eta aliantzen ikuspegitik, eta diskurtsoaren eta praktikaren arteko koherentziaren sustapenean.

Parte hartzaileak: **Mariano Flores.** Lafede.Cat.

**María Monzo Tatje.** Bartzelonako Udaleko Justizia Globaleko eta Nazioarteko Lankidetzako Zuzendaria.

**Liz Meléndez.** Centro de la Mujer Peruana Flora Tristán (Perú).

**Alberto Gastón.** Unibertsitate Kritiko Sarea - Gizarte Mugimenduen Herri Unibertsitatea.

Moderatzailea: **Zalóa Pérez.** REAS Euskadi.

10:45 - 12:30 **Talde-tailerrak**

12:30 - 13:00 Kafea hartzeko atsedena

13:00 - 13:20 **Azken iruzkinak Anahi Guelmanen eskutik**

13:20 - 13:30 **Jardunaldien ebaluazioa**

Izen emateak irailaren 23ra arte hemen: <https://forms.gle/w61etwQuWTU2iPWcA>

Antolatzaileak:



[www.ongdeuskadi.org](http://www.ongdeuskadi.org)

